

Iberdueroren akziodunen partaidetzak bat egitearekin birbaliotuko dira

Puntu bat igo dira irabazi garbiak urtearen lehen bost hilabeteetan

Atzo Iberdueroren akziodunek Bilbon egin zuten Batzar Nagusian Gomez de Pablos lehendakariak enpresaren partaidetzen balioa Hidrolarekin bat egitearen ondorioz balio handiagoa izango dutela azaldu zuen. Garrido kontseilari delegatuak «ontzat» jo zuen 1990eko ekitaldia eta aurtengoa «hobea» izango dela adierazi zuen.

BILBO

Iberdueroren Batzar Nagusian Kontseiluak aurkeztutako akzioak erosteko eskaintza publikoa (OPA) onartu zuen. Horrela, bi konpainien akordioaren ondorioz, Iberduerok Hidroelectrica Española integratuko du.

Euskal konpainia elektrikoaren lehendakaria den Manuel Gomez de Pablosek adierazi zuenez, HII Holding-en gestiopean sortuko den Iberdrola talde berriak, energia sortuntzan Espainiako kostu txikiak eta Europako merkeenetakoak izango ditu «eta honek gure akziodunei errentabilitate hazkorra ziurtatzen die».

Iberdrolak 700.000 milioi pezetako (38.800 milioi libera inguru) fakturazioa izango duela azaldu zuen Gomez de Pablosek. Aktiboen balio garbia 2,7 bilioi pezeta (150.000 milioi libera) baino gehiagokoa izango da eta errekurso propioek bilioi bat



Manuel Gomez De Pablos Iberdueroko Lehendakaria atzoko akziodunen batzar nagusian.

EFE

pezetaren kopurua (55.550 milioi libera) gaitutako dute.

Arlo elektrikoari dagokionez, Espainiako eskaeraren % 44 izango du eta Europar sektoreko lehen hiru enpresen artean kokatuko da talde elektriko berria.

Iberdrolak 14.000 langile izango ditu, eta egungo langilegoa baldintza berberetan mantenduko du, lehendakariak adierazi zuenez.

AURTENGO EKITALDIA «HOBEA» Bestalde, Jose Antonio Garrido Kontseilari Delegatuak azaldu zuenez, «1990. urtea ona izan da Iberduerorentzat, baina aurtengoa hobea izatea espero dugu». 1991ko

lehen hiru hilabeteetan % 12,25ekoak izan dira konpainia elektrikoaren irabazi garbiak, puntu bat gehiago aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero.

Epe berean % 25 eta % 30 bitarteko hazkundea izan du esplotazio emaitzak.

Aipaturiko emaitza ekonomiko positiboen zergatia azaltzerakoan «errekurtsoen erabilera egokiagoa eta kostuen murrizketara zuzenduriko politika» aipatu zituen kontseilari delegatuak.

Iazko urteari dagokionez, Garridok konpainiak egindako 64.000 milioi pezetako (3.555,55 milioi libera) inbertsioak azpimarratu zituen.


«Erabili dugun finantz estratergiari esker, inbertsio hauek % 0,5 bakarrik handitu dute zorra» zehaztu zuen. Negozioaren hazkunde garbia % 12,4koa izan da iaz, 300.000 milioi pezeta (16,66 milioi libera) ingurura helduz. Garridok azaldu zuenez «1991 hidrologikoki urte arrunta izaten ari bada ere, urtegiaren gestioz egokiak eta zentral nuklearen funtzionamendu onak produkzioaren % 5eko hazkundea izatea lortu dute». Urtearen lehen bost hilabeteetan eskaera % 4 hazi dela adierazi zien akziodunei kontseilari delegatuak. Urtearen bigarren zatirako nazioarteko merkatuetara irteko enpresa prestatzen ari dela esan zuen.

Arabako Haziendak 72.000 pezetako itzulketa egin du batezbeste

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Arabako Haziendan atzo arte jasota zeuden errenta aitortpenei buruzko datuak erakutsi zituen Alberto Ansolak. Banketxe edo aurrezkituetan osatzen duten «kanpoko sarearen» bitartez iritsi behar duten 20.000 aitortpenak oraindik falta badira ere, Arabako Diputazioak aurkezturikoak 89.669 izan dira. Hauen gehienak, 76.820, supersinplifikatuak ziren, eta arruntak gehi sinplifikatuak 12.849. Datu orokor gisara, aurtengo Diputazioak 72.000 pezeta itzuli dizkio zergadun arabarrari batezbeste.

Supersinplifikatuaren artean, 11.251 positiboak suertatu dira, 65.286tan zergadunak dirua jasoko du eta 283 nuloak izan dira. Honen ondorioz, Arabako Haziendak 541 milioi pezeta jaso ditu eta 4.724 milioi ordaindu behar izan ditu. Beraz, Ansolak esan bezala, «4.200 milioi-ko saldo negatiboa eragin diote Arabako Haziendari aurtengo aitortpen supersinplifikatuak». Gainera, iazko aitortpen supersinplifikatuak datue-



Alberto Ansolak.

OIALDE

kin alderatuz gero, aurtengo 7.000 aitortpen gehiago egin dira eta Haziendaren saldo negatiboa iaz 2.700 milioi pezeta ingurukoa baino ez zen izan. Bestalde, % 14,4eko beherakada somatu da aitortpen positiboetan eta % 15,6ko hazkundea egon da zergadunak dirua jasotzeko kasuetan.

-1990 urte «positiboa» -

Aurtengo errenta aitortpenek ahalbideratzen dituzten beste ausnarketa batzuk eman zituen Alberto Ansolak. 1990eko ekitaldiari dagokionean. Hala nola, EAEko diru-bilketaren % 16,30 bildu da Araban eta ekarpenaren koefizientea 14,86koa izan da, hots, «Arabak zuen koefizientea 1,5 igo duena». Horren ondorioa honakoa da, «Arabak onurak aterako dituela koefizientea igo bait du». Bigarren, bide exekutibo edo behartuaren bidezko bilketa «egonkortasunez» mantendu da. Beste datu «positiboa», Haziendak emandako ordainketa-atzerapenei buruzkoa da, % 60 igo direlako. «Haziendaren portaeraren malgutasunaren» berri agertzen du horrek Ansolaren ustez. Gainera, 1990eko etekin fiskalak 16.000 milioi pezetakoak izan dira. Azkenik, presio fiskalaz aritu zen Ansolak. 1990eko 16,5eko indizeak «goraipatzeko moduko egonkortasuna» adierazten duela esan zuen, «aldi berean zorpetzea gutxiagotu eta gastu arrunta mantenduz».



HONDARRIBIKO UDALA

Hiri honetako Udal Txit Garaiak 1991ko apirilaren 26ko Osoko Bilkuran hartutako erabakari jarraiki, herritar eta interesatu guztiei oro har jakinerazten zaie, Jaizkibel Mendiaren Iparraldeko Egian akanpatzeko, ondoren zehazten diren arauak bete beharko dituztela:

- 1.) Honako leku hauetan bakarrik akanpatu ahal izango da: Arzu-Azpiko Zelaian, Errotaren ondoan. Kapeluta (Malarranas) inguruan Farolatik sartuta. Hondarribiko Udalerrian, Jaizkibel Mendiko gainontzeko iparraldeko egi osoan akanpatzea erabat debekatua dago.
 - 2.) Leku horietara oinez bakarrik joan daiteke, eta ezin izango da motorrezko inolako ibilgailurik eraman.
 - 3.) Ez daiteke «roulott», «caravaning» edo beste inolako instalapen finkorik jarri, ohialezko akanpadendak bakarrik.
 - 4.) Akanpatu nahi duenak Udaltzaingoen bulegoan izena eman beharko du, denda bakoitzeko arduradunaren izena, N.A.N., helbidea eta denda horretan zenbat lagun egongo den adieraziz eta denda bakoitzeko 200 pezeta eguneko ordaindu beharko du, orduan zenbakidun txartel bat emango zaio eta dendaren kanpalkidean agerian jarri beharko du.
 - 5.) Akanpaldia gehienez astebetekoa izango da; hau igarotzean beste astebete jarraitu nahi badi, berriro eskatu egin beharko du eta lekua baldin badago emango zaio.
 - 6.) Zonalde bakoitzean gehienez 50 denda jarri ahal izango dira eta aldi berean ezin izango dira 200 pertsona baino gehiago egon.
 - 7.) Akanpatzeko baimen hau emateak Udala ez du behartzen inolako zerbitzu edo instalapenik jartzera, mendia zaintzea izan ezik. Zonalde hauetako bakoitzean zakarrontziak jarriko dira eta ahal izanez gero hauek egunero bilduko dira.
- Era berean Udal Teknikariei proposatuko zaie, inguru horietara edateko uda nola eraman aztertu eta horren aurrekontua presta dezaten.

Hondarribia, 1991ko ekainaren 21ean. ALKATEA